



Izar saltzailea

Ustiapen pedagogikoa

Lan ardatzak

- Jabetza pribatuari buruzko gogoeta: dena sal edo eros ote liteke?
- Gaizki den zerbait kritikatzek eragin dezakeen arbuiatzeari buruzko gogoeta. Diziplinatua izan behar ote da? Ala zuzentasuna bilatu behar ote da, gehiengoak ikusten ez badu ere?
- Elkarrekin egotearen garrantzia (izarrak zeruan, sozializazioaren sinbolo gisa).
- Hitzak, metaforak (hitzenak eta marrazkienak), sinboloak...

Lehen urratsa: albumaren ezagutzea

Zer giro sortzen ote dute marrazkiek? Zer sentsazio?

Liburuaren izenburua eta azaleko marrazkia ikusiz, zer pentsatzen dute ikasleek? Zer gogoeta eragiten die *Izar saltzailea* tituluak? Posible dela iruditzen ote zaie? Horren arabera, hipotesiak egin ditzatela liburuan aurkituko dutenari buruz.

2. urratsa: Aitzin solasa

Lehen bi orrialde bikoitzei begira. Xuban ametsetan ari den unea.

Ikasleek irakurriko dute eta marrazkiei artoski so egingen diete.

Irakaslearen galderak:

Zeri so ote dago Xuban? Zer jarrera ote du? Nolako pertsonaia ote da?

Zer ageri ote da zeruan? Nolako ote da herria? Zer giro sentiarazten ote dute etxeek?

Testuaren aztertzea: “orenak eta orenak”, “ameslari”, “lilura”... Zer adierazten ote dute?

Zuek zer pentsatzen ote duzue izarrei begira egotean? Egoten ote zarete izarrei begira?

Azterketa hori binaka edo talde handian egin liteke.

3. urratsa: Ipuinaren hastapeneko egoera

Xubanen bulegoaren azterketa. (8. - 9. or.)

Lehenik, irakasleak ikasleei galdetuko die bulegoan aurkitzen dituzten objektu edo sinboloen zerrendatzea. Zerrenda osatu eta, objektu edo sinbolo bakoitza zeri dagokion aurkitzera entseatuko dira ikasleak (zeri egiten dioten erreferentzia, zer egoerari, edo istorioko zer gertakari iragar lezaketen).

Ikasleek zerrenda binaka egin lezakete, eta gero zerrendako elementuak talde osoan partekatu:

- Leihotik sartzen den argia.
- Ontzi batean dagoen landarea.
- Ontzi batean dagoen kaktusa.
- Akuarioan dagoen arraina.
- Paperak, testua eta planoak.
- Botila bitxi batean lore batzuk.
- Arkatzak.
- Marketing buletina.
- *Financial Times*.

Marrazkiak aztertu ondoan ikasleek testua aztertuko dute, eta marrazkian ikusi dituzten ideien eta testukoen artean loturak egingen (argia piztu eta sakelak bete).

Irakaslearen galdera: "Zer ote da Xubanen xedea? Zer iradokitzen ote du "sakelak bete" horrek? Gauza ona dea ala txarra?"

Orduan hizkuntzaren erabilera aipatuko da, hizkuntzarekin zenbat josta gaitzkeen, zenbat adieraz dezakegun hitz gutiz: diruaren irabaztea aipatzen baldin bada "sakelak bete" erranmoldearen bidez, kritika zerbait bada.

Xuban izarren hartzen ari (10.-11. or.)

Marrazkia aztertuko da. Irakaslearen galdera: "Zertan ari da Xuban? Nola ari da? Zer elementu ageri ote da marrazkian?"

Horren ondotik, testua irakurriko dute ikasleek.

Irakaslearen galdera: "Zer egin nahi du Xubane? Nola lotzen duzue marrazkian ikusten duzuen eta testuan idatzia dena? Zer pentsatzen duzue "bakoitzak berea, bere logelan" ideiaz?"

"Ospearen ataria". Liburuaren hastapenetik hona Xubani buruz zenuten irudia aldatu ote da?

Xubanen saltegia (12. - 13. or.)

Ikasleek banaka irakurriko dute testua.

Irakaslearen galderak:

- "Xubanen xedea obratu ote da? Testuan, non ageri ote da hori? Zer ote da oraingo egoera?"
- Hiztegia eta sonoritatea (erre) aztertuko dira: "Zer adierazten ote dute? Zer sententzio eragiten ote dizute?"
- Zer ageri ote da marrazkian?"

4. urratsa: Arazoaren agerpena

Laida bere ahizparekin (14. - 15. or.)

Irakasleak: "Pertsonaia berriak agertu dira. Nor ote dira? Zer da bakoitzaren egoera?"

Marrazkiari so egiozue. Zer erakusten ote du bakoitzaren gorputz adierazpenak? Nola ote daude?"

Ikasleek testua irakurriko dute: "Zer pentsatzen ote du Laidak? Zer egiten ote du haren ahizpak? Zer arazo sortu ote du izarren salmentak? Nola sentitzen ote zarete Laidari begira?"

Laida saltegia (16. - 17. or.)

Ikasleek testua irakurriko dute.

Irakasleak: "Zer gertatu da edo ez da gertatu? Zer ote zen Laidaren asmoa?"

Hiztegia landuko da: aitzineko/aitzindu...

Marrazkiari so egingen diote ikasleek. "Zer ote dauka Laidak?"

Eltzeitsuaren sinbolika aipatuko da, zerbait inportanteren erosteko diruaren aurrezte, eta abar...

Xuban diruaren kontatzen (18. - 19. or.)

Ikasleek marrazkiari so egingen diote eta aztertuko dute. Binaka, marrazkian ageri diren elementuak zerrendatuko dituzte.

- Dirua.
- Xubanen poza.

- Xuban bizkarrez.
- Neska bat triste.
- Kaiolak hutsik.
- Jende batzuk haserre.
- Bozgorailua.
- Pankarta (herritar bat izar bat).
- Laida eta bere eltzeitsua.

Bikote bakoitzak zerrendako elementu bat aztertuko du. Zer adierazten ote du? Zer kontatzen ote du?

Ikasleek testua irakurriko dute. Testuaren estiloa aztertuko da: "Nola idatzia ote da? Zer forma du? (ikasleak ohartu behar dira erranaldi gero eta laburragez, eskailera egituraz). Zer adierazten ote du edo zer sentazio eragiten?"

Hiru orrialde bikoitz horiek ikusirik, hau aztertuko da:

"Zer da izar salmentak sortu duen arazoa?" (erantzuna: ez dela denentzat izan, eta frustrazioak eragin dituela).

5. urratsa: produktuaren agortzea

Merkatu beltza (20. - 21. or.)

Ikasleek marrazkiari so egingen diote eta elementu hauek aztertuko: koloreak, aroa, elementuak...

Irakaslearen galdera: "Zer giro sorrarazten ote du marrazkiak? Nola lotzen ote da aitzineko orrialde bikoitzean agertu den informazioarekin? Zer izan da izarrak bukatzearen ondorioa, zuen ustez?"

Ikasleek testua irakurriko dute.

"Zer arazo sortu ote du izarren pribatizazio horrek? Agertu diren arazo guztiak zerrenda itzazue. Errealitatean gertatzen ote da halakorik, beste produktu batzuekin?"

Izarren distira galtzea (Xubanen lehen krisia) (22. - 23. or.)

Marrazkiari beha iezaiozue. Zer sentazio eragiten ote dizue? Izararen jabeek zer sentitzen ote dute?"

Aitzineko orrialde bikoitzari lotuak ziren gogoetekin lotura egingen da. Bi aldeak aipatuko dira: izarrik ez dutenak eta izarra dutenak.

Ikasleek testua irakurriko dute.

"Zuen ustez, izarra duen jendea zergatik dago triste?"

Bigarren eskuko izarren merkatua (24. - 25. or.)

Ikasleek testua irakurriko dute. "Zer gertatzen ote da? Noiz berreskuratzen ote dute distira izarrek? Zuen ustez zergatik gertatzen da hori? Zer adierazi nahi da horrekin? (bi aldeetarik azter daiteke, baina ikasleak lagundu beharko dira horra heltzen: kontsumo jendartearen aldetik, beti nahi ditugula produktu berriak; harremanen aldetik, jende berria ezagutzeak aberasten gaituela).

Marrazkia aztertuko da, koloreak, alaitasuna.

"Zer adierazten ote dute marrazkiek eta koloreek?"

Izarren distiraren bigarren galtzea (Xubanen bigarren krisia) (26. - 27. or.)

Ikasleek testua irakurriko dute. Hitz hauek aztertuko dira: *berpizkundera, berriz ere, ilundu, goibeldu...*

"Zer adierazten ote dute hitz horiek? Zer giro sortzen ote da?"

Marraskia aztertuko da: "Nor agertzen ote da? Nola dago? Zer giro ote da? Zer adierazi nahi du "zorion iragankorraren ondorioak!" erranaldiak? Zer estilo da? (ironia)"

Gogoeta bat eramanen da iragankortasunaz.

6. urratsa: Gatazka

Laida bi izarrekin (28. - 29. or.)

Marraskia aztertuko da: "Zer ageri ote da? Egoera aldatu da. Zer ote da aldaketa? Zer adierazten ote du aldaketa horrek? Zer ondorioztatzen ote duzue?"

Ikasleek testua irakurriko dute.

"Marraskian ikusi eta ondorioztatu duzuen osa ezazue testuko argibideekin. Zer egin ote du Laidak? Zer ote da mezua? Zeren metafora izan liteke?"

Lehen izarrak zeruari itzuli (30. - 31. or.)

Marraskia aztertuko dira.

"Zer egin ote du Laidak? Hori eginen zuela pentsatzen zenuten? Zergatik egin ote du hori?"

Ikasleek testua irakurriko dute eta testuko argibideak bilduko, binaka.

"Nola ihardukitzen ote du jendeak? "ikasleek aurkitu behar dituzte kontrakoak eta aldekoak).

Hitzen aztertzea: jendearen so beltzak/ortzia argitzen, zeruari itzuli...

"Zergatik dira garrantzitsuak hitz horiek? Zer adierazten dute, sakonki? (adibidez, "zeruari itzuli"-k adierazten du izarrak zeruarenak zirela berez...)"

Erranaldi hau irakurriko du irakasleak: "lau izar itzatu ziren zeruan.". "Itzatu" hitzak adierazten duena aipatuko da ikasleekin, bai irudi gisa (izarra iltzea bezala), baita horren ondorioa ere (zerua gure gainera ez erortzeko bidea).

Askapen Mugimendua (32. or. - 33. or.)

Ikasleek testua irakurriko dute.

"Aitzineko orrialde bikoitzetik landa, zer gehiago gertatzen da edo zer gehiago jakiten dugu?"

Marraskia aztertuko da: "Zer adierazten ote dute ilustrazioek? Nola laguntzen ote dute testuaren ulermena? Zer argibide ote dago marraskian?"

Laida preso (34. - 35. or.)

Marraskiaren aztertzea: "Zer ageri ote da lehen planoan? Zer gertatu ote zaio Laidari? Zuen ustez, zergatik gertatu ote da hori? Zuzena iruditzen ote zaizue?"

Ikasleek testua irakurriko dute.

"Zer azalpen ematen ote digu testuak? Zer argibide gehiago ematen ote du?"

Erranaldi hauek azter itzazue: "legea lege zen!" / "izarrek beren jabea zutela".

"Zer adierazi nahi ote du horrek? Zer ote da zuen iritzia?"

7. urratsa: Bakearen gainetik, berriz ere distira galtzen (hirugarren krisia)

Bakearen itzulera (36. - 37. or.)

Ikasleek marrazkia deskribatuko dute: "Zer ageri ote da? Zer giro adierazten ote du? Zer sentsazio sentiarazten?"

Ikasleek testua irakurriko dute: "Zertaz ari da? Zer goraipatzen ote du? Zer ote da bakea?"

Testuan dagoen ironia azpimarratuko da.

Bakeari buruzko gogoeta bat eramanen da.

Izarren distira berriz histu (Xubanen hirugarren krisia) (38. - 39. or.)

Ikasleek marrazkia deskribatuko dute: "Zer giro adierazten ote du?"

Testuaren aztertzea: "Zer argibide gehiago ematen ote du? Nola osatzen ote du marrazkiak adierazten duen giroa?"

Hitzen aztertzea: "Tiriki-tarraka": zer adierazten ote du? Mintzatu errutinaz, asperduraz. "Itzali", "iluna": zer adierazten ote dute?

"Zenbatgarren aldia da halako histe bat gertatzen dela? Zer irakaspen ematen du histe horren errepikapenak? Zuen ustez, zer gertatuko ote da?"

8. urratsa: Gatazkaren konponbidea, korapiloaren askatzea

Xubanen tristura (40. - 41. or.)

Marrazkiaren aztertzea: "Zer ikuste ote duzue? Nola ote dago Xuban? Zuen ustez zergatik? Zer sentitzen duzue hori ikustean?"

Ikasleek testua irakurriko dute.

"Zer gertatzen ote da? (ikasleek ikusi behar dute bihurgune bat gertatzen dela Xubanen gogoetetan, izarrei buruzko ikuspegian).

Xubanen ohartzea (42. or. - 43. or.)

Ikasleek testua irakurriko dute.

"Zenbat denbora iragan ote zuen Xubanek egoera horretan? Zer leku aipatzen ote da testuan? Zer ideia adierazten ote dute "sotoan" eta "gotortuta" hitzek? Zergatik ote da "erabaki zailena"?"

Marrazkiaren aztertzea: "Non ote dago Xuban? Nola ulertzen ote duzue zuhaitz biluziaren irudia?"

Izarrak askatzen (44. - 45. or.)

Ikasleek testua irakurriko dute.

"Zer gertatu ote da? Hori gertatuko zela uste ote zenuten?"

Marrazkiari so egitea eta haren deskribatzea.

"Zer adierazten ote dute testuak eta marrazkiak? Zer izan liteke mezua (istorio honetatik harago)?"

Alaitasuna itzuli da herrira (46. or. - 47. or.)

Ikasleek testua irakurriko dute.

Ikasleek testuan irakurri dutena konparatuko dute hastapeneko irudiekin: "Zer ote da mezua? Zer adierazten ote du?"

Marrazkiaren aztertzea: "Zer ageri ote da? Non ote dago Laida? Zer egiten ote du Xubanek? Beste zer marrazki datorkizue gogora, marrazki hau ikustean? (zurubiez ohartu behar dira: hastapenean erabiltzen zituen izarrak biltzeko, orain erabiltzen ditu Laidaren askatzeko)."